

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIAKO UDALA

**Irailaren 25eko 395/2019, ebazpenaren laburpena, musika ikasketen beken deialdia. 2018/2019 ikasturtea**

BDNS(Identif.): 475045

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, testu osoa Diru-Laguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Diru-laguntzen onuradunak izango dira honako musika-ikasketak egiten dituzten adingabe guztiak, baldin eta Barrundian erroldatuta badaude: 1. mailako irakasgaiak, musika-hizkuntza, instrumentua, armonia modernoa, instrumentu-taldea edo comboa, ahots-taldea eta irakaskuntza indartua edozein "Udal Musika Eskolatan".

#### **Bigarrena. Diru-laguntza ematearen xedea**

2018/2019 ikasturtean musika ikasketak burutzearren dagozkien zenbatekoei zati batean finantzatzea.

#### **Hirugarrena. Oinarri araupetzaileak**

Udalbatzak, 2019ko apirilaren 30ean egindako batzarrean, musika beka emateko araupetuko duten oinarriak onartu zituen.

Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: [www. barrundia.eus](http://www.barrundia.eus).

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Kopuru osoa: 3.500,00 euro.

Aurrekontu partida: 320.480.001.

#### **Bosgarrena. Eskariak aurkezteko epea**

Dokumentazioa aurkezteko epea 2019ko urriaren 31ra arte izango da.

Ozaetan, 2019ko irailaren 25ean

*Alkatea*

*IGOR MEDINA ISASA*